

## **2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure produktua hainbat bezeroetara zuzenduta dago, gehienbat, Euskal Herriko eta Espainiako ikasle eta irakasleentzat. Alde batetik, Batxilergoko ikasleei, ikasterako garaian pelikulak ikusiz eta horien laburpenak eginez gaiak hobeto ulertzen lagunduko liekeelako. Bestalde, irakasleen lana erraztuko luke aplikazio honek, azalpenak emateko garaian bideoak oso lagungarriak izan ohi direlako.

Beste hitzetan esanda, hezkuntzan erabiliko litzatekeen aplikazioa da hau, batez ere Batxilergoan. Gure materiala euskaraz zein gaztelaniaz izango denez, bi hizkuntza horietan ikasten dutenengan jo nahi dugu, batez ere euskaraz ikasten duten horiengan, bestelako azalpen gutxi aurki baitaitezke webgunean. Aplikazio honen helburua ikasleek ikastea eta irakasleek modu dinamikoagoen irakastea denez, gure bezeroek ikasteko zein irakasteko gogoia izatea espero dugu.

